

Igogailuan behera

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Erditik ireki da atea, eta sartu egin naiz. Botoia sakatu dut zerogarrenera jaisteko, eta bere tokira eraman dut bufandari beti bezala erori zaion muturra; nik ego-
tea nahi dudana tokira. Orduan begiratu diot lehenengoz igogailuko ispiluari, eta azken hilabeteotan inoiz ez bezala ikusi dut hark itzuli didan isla: bakarrik.

Haur jaioberria soinean ibili bainaiz, erabat, kabina honetan gora eta behera. Hala atera ditut dozenaka erretratu mugikorraz, bizitzako aro hau noizbait ahaztuko dudanaren beldurrez-edo, betikotzeko, sekula ez amaitzeko: bera eta ni, ni eta bera, biok. Bi baina bat, biok bat. Ez baikara kanguruak, ez, baina,

behar dugu jaio eta beste bederatzi hilabetez, gutxienez, gure amei itsatsita bi-
zi, kanpo-haurdunaldi batean bezala.

Kontua da, gaur oraindik ez direla bost hilabete ere igaro erditik ireki eta unibertso honetan bigarrenaz sartu nintzenetik. Gaur, goizegi da honetara-
ko; goizegi pisuz pisu etxetik urrutira-
tzeko. Ez dut nahi, berak ere ez du nahi; berak behar nau, elkar behar dugu. Azkarregi doa igogailua behera, hura ere bere izen eta izanaren kontrakarrean, zergatik ez beheragailu, nola da posible, oihukatu nahiko balit bezala gertatzera doana lekuz kanpo dagoela.

Banekien gaurkoa bazetorrela. Baze-
kien buruko egutegiak, nahiz eta gorpu-

tzekoaren tempoa beste bat izan. Saiatu naiz lantokira, erritmo produktibo kapi-
talistara, itzultzeko momentuarekin gehiegi ez pentsatzen; are, astroren ba-
tzuk elkar jo eta itzulera hau ez zela ger-
tatuko ere sinetsarazi diot neure burua-
ri zenbait gautan. Baina iritsi da.

Iritsi zen, duela bi aste. Zurrumbilo eta an-
bibalentzia formatuan, nola ez. Nire uste guztien kontra, on egin didalako burmuina aspaldi utzitako zereginetara nahiko ondo itzuli dela ikusteak. Eta, ni-
re uste guztiekin bat eginik, itzulerare-
kin eroso samar sentitze horrek erru do-
si berri bat sartu didalako zainetara. Hori ere bai baita amatasuna: igogailu izanda ere, behera jaitsi behar izatea. •

Berrogei

Miren AZKARATE
BADIOLA

Gaurko egunez jaio nintzen duela 40 urte, martxoaren 9 batean. Bai, berrogei, ai ama-
txo maitia!!! Eta niri iruditu oraindik 28 ditudala! Ba ez, Miren, ez. Ez dakit non, urte batzuk galdu zaizkit niri ohartu gabe. Eta gainera entzungo dut egunotan: «40? Orain hasten da onena!». Ba ez dakit ba, nik ez ditut oso ongi jaso.

Duela 40 urteko prentsan azaldutako albisteak bilatu ditut. “Hertzainak” dis-
koa kaleratu zela izan da ikusi dudana lehena. Ondoren, eta garaia zeintzuk ziren ongi jakinda, eraildako zerrenda handi bat azaldu zait: Santi Brouard be-
re mediku kontsultan, GAL-ek “Peru”

eta “Stein” Hendaian, Pasaian Polizia Nazionalak Komando Autonomoetako lau kide. Baina gertakari gehiago ere izan ziren, tartean 78 urteko emakume iruindar bat etxetik bota zuten eta Gaztelu plazan kanpaldi bat egin zen protesta moduan, bost egunetara udaltzai-
nek atera zituzten handik. Edo beste hau: Sakanako hainbat udal elkartu zi-
ren eskualdeko udal eta kontzeju guz-
tiak bilduko zituen mankomunitatea osatzeko. Istiluak polizia eta herritarren artean, ETA Politiko-militarrak armak utzi zituen... Luze joko luke zerrendak.

Jolas moduan, kuadrillan galdetu dut: zein albiste irakurri nahiko zenu-

kete hemendik 40 urtera? Erantzunak: «Irakurtzea bera ez legoke gaizki; 82 urterekin?! Zerua existitzen dela de-
mostratu du Mimesotako Unibertsita-
teak; Martuteneko kartzela zegoen to-
kian duela 35 urte landatutako haritzen basoak nazioarteko milaka bi-
sitari jaso ditu; homo sapiens espe-
zieak homo solidariumi eman dio erre-
leboa; puf! Eztit buruak ematen; gaurtik aurrera ura, elektrizitatea, etxebizitza eta elikadura eskubide uni-
bertsalak izango dira, egiatan...»

Urteak betetzen jarrai dezagun eta irakurri nahi genituzkeen albisteak egi-
karitzen. •